








BORTZIRIETARAKO

# EUSKARAREN II. PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2024

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

# 2023ko jardueren MEMORIA

## SARRERA

Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2021-2024) hirugarren urteko jarduera planari buruzko memoria da hau. Memoria honen helburua da 2023ko planak ildoz ildo eta arloz arlo jasotzen dituen jardueren gaineko azalpen eta ebaluazio laburra egitea.

Jardueren ebaluazioa modu bisualean egin nahi izan da. Hortaz, jarduera burutu den edo ez, edo bertze modu batean garatu den, berde, gorri eta laranjaz ageri da. Eta horien azpian jardueraren ebaluazio kualitatibo laburra agertzen da. Jakina, 2021-2024 planaren bukaeran memoria sakonagoa eginen da, kuantitatiboki eta kualitatiboki datu gehiagoz hornitua.

Beraz, eta memoria jasotzen duen dokumentu honetan hasieratik planaren egikaritze maila ikusteko, semaforo moduko laburpena aurreratzen dugu. Berdez daude aurreikusi bezala garatu diren jardueren kopurua, gorriz burutu ez direnak (denbora faltagatik, bertan behera gelditu direlakoz, geure aldetik aurreikusi baina bertze eragileekin elkarlana eskatzen zutelakoz, ez delakoz horretarako beharrik izan, etab.) eta laranjaz bukatu gabe gelditu direnak edota aurreikusia ez zegoen modu batean garatu direnak:

| **ILDOA** | **JARDUERA KOPURUA** | **BAI** | | **EZ** | | **ERDIZKA** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Abs.** | **%** | **Abs.** | **%** | **Abs.** | **%** |
| 1. SOZIALIZAZIOA (<16 urte) | 23 | 19 | % 82,6 | 1 | % 4,3 | 3 | % 13,0 |
| 2. HIZTUN BERRIAK | 9 | 9 | % 100,0 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 |
| 3. GIZARTE ERABILERA | 66 | 31 | % 47,0 | 20 | % 30,3 | 15 | % 22,7 |
| 4. CORPUSA | 2 | 1 | % 50,0 | 0 | % 0,0 | 1 | % 50,0 |
| 5. KUDEAKETA | 23 | 18 | % 78,3 | 3 | % 13,0 | 2 | % 8,7 |
| GUZIRA | **123** | **78** | **% 63,4** | **24** | **% 19,5** | **21** | **% 17,1** |

Horiez gain, aipatu behar da urteko jardueren planean aurreikusiak ez ziren 5 jarduera garatu direla.

Arantzan, 2024ko ilbeltzaren 24an
Euskara teknikariak
Urko Ikardo Enparan eta Patri Arburua Etxeberria

## 2023KO JARDUERAK



## Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

<table>
<tr><th colspan="3">Arloa: ETXEA</th><th>Lehentasuna: ALTUA</th></tr>
<tr><th>JARDUERAK</th><th colspan="3">EBALUAZIOA/JARRAIPENA</th></tr>
<tr><td rowspan="2">1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurrak euskaraz sozializatzearen eta bereziki etxean euskarak ahalik eta presentzia handiena izatearen garrantziaren inguruan.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Azarora arte Bortzirietan jaio eta bertan erroldatu diren 32 haurren familiei “Ongi etorri, jaioberri!” materiala bidalia (abenduan jaiotakoei bidaltzea falta). Horrez gain, Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek argitaratzen duten material horren berrargitaratzea kudeatzeaz arduratu gara.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen dituzten funtzioei buruzko mezuak eta euskarriak (idatzizko euskarriak, geletako bilerak…) sortu eta 3 urteko haurrak dituzten familiei helarazi.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">“Familia eta eskola norabide berean” materiala banatu zaie 3 urteko haurrak dituzten familia guziei ikastetxeen bitartez. Orain arte papereko euskarrian banatzen zenari aurten bideo formatua gehitu zaio, geletako bileretan ikastetxeek erabiltzeko. Irailean egin da horien zabalkundea ikastetxeetan eta sare sozialetan. Horrez gain, Nafarroako mendialdeko euskara zerbitzuek argitaratzen duten liburuxka honen berrargitaratzea kudeatzeaz arduratu gara.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak… eskaini gurasoek haurra euskaraz sozializatzeko prozesuan bete dezaketen funtzioaz eta etxean euskarak presentzia ahalik eta handiena izatearen garrantziaz.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Bor-bor taldearekin elkarlanean (Borborraldia) UEMAk gurasoak sentsibilizatzeko (euskaraz dakitenak/ez dakitenak) tailerrak antolatu ditugu. Egin gabe gelditu ziren ez zelakoz jende nahikorik apuntatu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu, bereziki UEMAren HEDATU programaren bitartez.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">UEMArekin elkarlanean “Ispiluari begira” tailerrak antolatu ditugu Irain eta Igantziko eskoletan eta Tantirumairu Ikastolan. Tailerra haurren eta helduen hizkuntza ohituren gainean da, zati bat LH2ko ikasleekin lantzen da, eta bukaerakoa gurasoekin. Ikastetxe guzietan eskaini dugu baina momentuz hiru horietan animatu dira; helburua da sistematizatzea eta urtero egitea.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">5. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Sare sozialen bidez ERAren zenbait eduki zabaldu dira. Teknikaria sareko aisialdi lantaldean egonik, udaleku itxiei buruzko informazioa prestatzea egokitu da. Horrez</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | gain, iraileko artikulua idaztea ere egokitu zaio: https://eranafarroa.eus/eskolatik-kanpo-ere-euskara-ahalik-eta-gehien/ | | |
| 6. Haurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzekoen gaineko baliabideak eskaini. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Abenduan bi urteko haurrak dituzten familiei (2021ean jaioak) *Irria* aldizkariaren abenduko alea bidali zaie, eta harpidetza egitera animatuko zaie. Ekimen berria da. | | |

| **Arloa: ESKOLA** | **Lehentasuna: ALTUA** | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 7. 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, euskarazko murgiltze eredua hauta dezaten aholkatuz. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Beran 2020-2022 bitartean jaiotako haurren familiei eskutitza eta D ereduaren aldeko argudioak hainbat hizkuntzatan. Eredu ezberdina erabili da 2020ko familientzako, horiek zirelakoz 2023an eskolatu beharrak. Urte horretakoak 36 familia izan dira, eta eskutitza bidaltzeaz gainera, alkatearen deia jaso dute. Deiaren gidoia eta segimendurako materiala prestatu dugu. Emaitzei dagokienez, Beran emaitza hobeak utzi ditu aurtengoak: | | |

| **2020-2021** | | | **2021-2022** | | | **2022-2023** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A** | **B** | **D** | **A** | **B** | **D** | **A** | **B** | **D** |
| 5 | 1 | 26 | 2 | 1 | 30 | **2** | **1** | **36** |
| 15,6 | 3,1 | 81,2 | 6,06 | 3,03 | 90,9 | **5,1** | **2,6** | **92,3** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnasguneen garrantziaren inguruan; ekintza UEMAren HEDATU programaren bitartez garatuko da bereziki, baita EIBZren Motibazioa Sustatzeko Baliabideak blogaren bidez ere. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Saiakera berezia egin dugu urtearen hasieran eta irailean, ikastetxez ikastetxe, UEMAren HEDATU programa azaltzeko. Inoiz baino tailer eta jarduera gehiago atera dira aitzinera:<br>• *Bagoaz* tailerra (LH6), Arantza, Igantzi, Lesakako Irain eta Etxalarko eskoletan eta Tantirumairu ikastolan.<br>• *Ispiluari begira* tailerra (LH2) Tantirumairu ikastolan, Irain eskolan eta Igantziko eskolan (1.4 jardueran aipatua).<br>• *Batxitailerra* Toki Ona institutuan.<br>• Soziolinguistika formakuntza irakasleentzat, Igantzin.<br>• Euskara erabiltzeko estrategien inguruko formakuntza irakasleentzat. Igantzin eta Irainen.<br>Horiek 2023an egindakoak; ikasturte honetarako badira bertze zenbait dagoeneko lotuak. | | |

<table>
<tr><td rowspan="2">12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoa sortu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">2022-2023 ikasturte bukaeran oinarrizko jarduera plan bat adostu zen eta ikasturte honetan horiek garatzen hasi da mahaia: irakasleentzako formakuntza bertako hizkeraren gainean, harrera protokoloak eta ikastetxeetarako hizkuntza irizpideak. Foro hori hiru aldiz elkartu zen 2023 urtean.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki (hezkuntza arloko mahai teknikoan).</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Jarduera hau 12.aren garapenarekin lotua zegoen, foro horretan eginen zen planarekin lotua.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">14. Ikastetxeei hizkuntza planean laguntza teknikoa eskaini eta hizkuntza irizpideak landu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Jarduera hau aitzineko biekin lotua dago neurri handi batean. Hezkuntza mahai horretan landuko direnez aparte, UEMAk irakasleei eskaintzen dizkien formakuntzak ere eskaini dizkiegu ikastetxeei.<br>Horrez gain, mankomunitatetik ikastetxeen bitartez familiei helarazteko baliabide guzien zerrenda eguneratu dugu eta ikastetxeekin partekatu genuen irailean egindako bileretan.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">“Euskara eta kulturartekotasuna” proiektua Ricardo Baroja I.P.an pilotatu</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Zaldibiko ikastetxean 2021-2022 martxan jarritako proiektuaren garapena da. Ikastetxe horrekin batera HUHEZI eta UEMA aritu ziren proiektuaren sorreratik. Hurrengo ikasturtean bortz ikastetxe gehiagotara zabaldu zen, eta hirugarrenean 13 gehiagotara, tartean Ricardo Baroja I.P.ra. Udaberrian talde eragilea sortu zen, ikastetxeko ordezkariek, gurasoek, udal ordezkariek, BEMeko eta UEMAko teknikariak osatuta. Irailean gainerako irakasleei egitasmoa aurkeztu zitzaien, baita familiei ere, eta orain inplementazioan ari gara.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="3">Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA</td><td>Lehentasuna: ALTUA</td></tr>
<tr><td>JARDUERAK</td><td colspan="3">EBALUAZIOA/JARRAIPENA</td></tr>
<tr><td rowspan="2">15. 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Iazko euskarri berdinekin eginen da aurtengoa ere (paperekoa eta bideoa eskolen bidez banatzeko). Horrez gain, teknikarien sarerako den material hau berrargitaratzea kudeatu dugu. Bideoaren kasuan, off-eko ahotsa gaztelaniaz duen bertsioan azpitituluak hainbat hizkuntzatara itzuli ziren 2023an.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2">16. Guraso elkarteekin eta herrietako kultur eragileekin lanketa egin haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintzaren gaineko hizkuntza irizpideei buruz.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Landu gabea. Hizkuntza irizpideen lanketa Beti Gazte eta Gure Txokoa elkarteekin (kultur elkarteak ere badira) hastea hobetsi da (ikus 91. jarduera).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">17. Euskarazko produktuen katalogoa (paperezkoa, digitala eta bertzelako euskarriak) banatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Banaketa egina: 3 urtetik goitiko haurren familiei ikastetxeen bidez, eta hortik beheiti posta arruntez. Euskarriak: katalogoa, poltsa, kartelak eta Olentzeroren gutuna.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">18. Euskarazko udaleku itxien berri eman.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">LH eta DBHko ikasleen familiei euskarazko udaleku itxien eskaintzaren berri eman diegu ikastetxeen bitartez, baita ERAren bidez eta sare sozialen bitartez ere.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">19. Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">14-18 urte bitarteko gaztetxoei udaleku hauen berri eman zitzaien. Bortzirietatik hainbat gaztetxok izen eman dute, baina eskaera aunitz izan direnez, zozketa bidez erabaki da nor joan; guzira 9 neska joan dira (bina Arantza, Bera eta Lesakatik eta 3 Igantzitik).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">20. Era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Era.eus agenda elikatu dugu. Bortzirietan haur eta gaztetxoentzat antolatutako ekitaldiak bertan zintzilikatu ditugu (guzira 12 ekitaldi).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">21. Udaleku irekiak antolatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Aurten udalekuetan inoizko haur kopururik altuena izan da: 262. Guzira 24 begirale aritu dira lanean. Balorazio espezifikoa egina eta onartua B. Erabakitzailean.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoa antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Udalekuetan lan egin duten begiraleentzako formakuntza antolatu da. Bi gai: lehen sorospenak (Lesakako osasun zentroa) eta UEMAk begiraleentzat eskaintzen duena. Gainerako arloetako begiraleentzat ez da deus antolatu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">26. “Irakurriz gozatu” egitasmoan parte hartu (“Beitu” agerkari digitala).</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">DBH 4ko ikasleek Beitu! agerkari digitalera sarbidea izan dute debalde urtarriletik aitzinera (harpidetzak ez du epe mugarik). Abenduan egitekoa zen Toki Ona Institutuan aurkezpena, baina agenda kontuengatik urtarrilaren 19ra atzeratu da. Emaitzei dagokienez, 71 ikaslek hartu dute agerkari digitalaren harpidetza. Ekainean galdetegia banatu zaie eta 48k eman dute erantzuna; kontsumo ohiturei buruzko zenbait datu eskuratu ditugu.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2">27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Harrera protokoloaren zirriborroa egin dugu eta hezkuntza arloko mahaian partekatu dugu. Ekarpenik egin ez badute ere, ongi baloratu dute; gaia berariaz landuko da ikasturtean zehar foro horretan bertan.<br>Iraingo Guraso elkartearekin harremanetan izan gara ikasturte hasieran, harrerari buruz eta gurasoentzako euskara 0 ikastaroa antolatzeko aukerari buruz solastatzeko. Harrera protokoloa bidali diegu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Solasean programa:<br>2022-2023 ikasturtean Lesakako taldean 9 partaide izan dira eta Beran 15. Haurren tutoreekin eta Topaguneko teknikari eta dinamizatzaileekin egindako bileran balorazioa ona izan zen. 2023-2024 ikasturtean Lesakan 11 partaide hasi dira, eta Beran 10. Ikasturte erdiko balorazio bilera egina Topagunearekin eta begiraleekin.<br>Horrez gain, Dindaia Fundazioak antolatu eta Euskarabideak babesten duen Euskaraz Kilika egitasmoa sustatu dugu. Solasean programaren antzeko helburuak ditu, baina online garatzen da, eta toki ezberdinetako haurrak elkartzen ditu. Aurten Bortzirietako 15 haurrek hartu dute parte egitasmo honetan.</td></tr>
</table>

# Ildoa: HIZTUN BERRIAK

<table>
<tr><th colspan="3">Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA</th><th>Lehentasuna: ALTUA</th></tr>
<tr><th>JARDUERAK</th><th colspan="3">EBALUAZIOA/JARRAIPENA</th></tr>
<tr><td rowspan="2">31. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina, motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta, eta mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Iraileko matrikulazio kanpainarako 3 bideo labur egin ditugu, lan arloa gaitzat hartuta, sare sozialen eta whatsappen bidez zabaldu direnak, baita BEMen webgunearen bidez ere.<br>○ Meylin: 340 ikustaldi.<br>○ Juanma: 289 ikustaldi.<br>○ Karmen: 159 ikustaldi.<br>• Prentsaurrekoa egin dugu eta oihartzuna izan du tokiko hedabideetan.<br>• Irailean 54 ikasle matrikulatu dira, 52 Bortzirietan, 1 IHEOn eta bertzea AEKn.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">33. Hiztun berriek ikusgarritasuna izan dezaten eta gizarte bizitzan euskaraz parte har dezaten ekintzak, hiztun talde honi prestigioa eta zilegitasuna emanen diotenak.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Jarduera hau bete dugu bideoen zabalkundearekin. Bideoak eta komunikazio kanpainak balio izan dute hiztun berriei ikusgarritasuna eman eta aitortza egiteko.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">34. Bortzirietako Euskaltegiarekin elkarlanean ikastaro bereziak antolatu (euskalduntzera hurbiltzeko ikastaro laburrak, alfabetatzeko ikastaroak adin talde eta sektore zehatzentzat, arlo zehatzekin lotutako ikastaro espezifikoak…).</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Ikastaro berezi bat antolatu da, zaintzaileei zuzendua (ikus 44. jarduera).<br>Horrez gain, irailean hitano ikastaro laburra egin da<br>(ikus 137. jarduera).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">• 2023-2024 ikasturterako deialdia onartu dugu martxoan. Eranskinak sinplifikatu dira eskatzaileentzako erosoagoa izateko, baita euskaltegiko eta BEMeko langileentzako arinagoa izateko ere.<br>• Euskarabideak ematen dituen euskara ikasleentzako dirulaguntzak eta BEMek ematen dituenak bateragarriak izaten ahal diren aztertu dugu, baina ez dugu horretarako biderik harrapatu.<br>• Uztailean, 2022-2023 ikasturteko bigarren zatia ebatzi dugu, eta guzira 73 beka eman dira:<br>  • 42k falta bigarren zatia (%25) hartu dute.<br>  • Bertaratzea kontuan hartuta, 13k ez dute bigarren zatia jaso (% 75 ikasturte hasieran jasoa).</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | • 18k bekaren % 100 ikasturte bukaeran jaso dute.<br>• 2023-2024 ikasturteko dirulaguntzaren lehen zatiari dagokionez, urriaren 13a baino lehen (eskaera egiteko epearen barne) 55 eskaera jaso ditugu:<br>• 42 dirulaguntzaren zati handiena ikastaroa hasi eta berehala jasotzeko.<br>• 1 udan egindako ikastaroagatik.<br>• 12 irailean egindako hitano ikastaroagatik.<br>• Dirulaguntza nahi baino beranduago ebatzi da, abenduaren 11n. Izan ere, 3 ikaslek ez dute dokumentazioa behar bezala aurkeztu, eta horrek dena atzeratu du. Azkenerako, eskaera egin duten ikasle guztiek bete dituzte baldintzak eta hartu dute dirulaguntza. | | |
| 39. Bortzirietako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 3 bilera egin ditugu aurten, urtarrilaren 13an, otsailaren 24an eta urriaren 20an. | | |
| 40. Bortzirietako Euskaltegiari dirulaguntza ematea. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Dirulaguntza osorik hartu du Euskaltegiak (dirulaguntzaren 3.zatia azaroaren 24an ebatzi zen). | | |

| **Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA** | | | **Lehentasuna: ALTUA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | • Otsaileko matrikulazio kanpainarako mezuak bidali zaizkie euskara ikasleen dirulaguntza eskatua zutenei.<br>• Otsaileko matrikulazio kanpainan, 8 lagun gehiago hasi dira egitasmoan, eta 2 talde berri sortu dira.<br>• Urritik ekainera bitarteko parte hartzeko datuak honako hauek izan dira:<br>• 23 solaslagun, 5 taldetan banatuta, 4 Beran (horietako bat gurasolagun taldea), eta borzgarrena Lesakan.<br>• Zenbait jarduera osagarri egin dituzte.<br>• Urrian izen eman dutenen datuei erreparatuta, izen emate berri bat izan da. Taldeen osaera berbera izan da:<br>• 25 solaslagun, 5 taldetan banatuta, 4 Beran (bat gurasolagun taldea), eta borzgarrena Lesakan. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Martxotik ekainera arte Monika Elaideko lan taldean aritu da. Beraz, agenda elikatzeaz gain, proiektuaren garapenean ere hartzen dugu. Urko bueltatzearekin agenda elikatzeaz arduratu gara soilik. https://elaide.eus/ | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK** | | | **Lehentasuna: ALTUA** |
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 44. Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara+, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Zaintzaileentzako ikastaroa Lesakako zahar etxean antolatu da. Nabarmentzekoak izan dira izen-ematea (15 lagun) eta Lesakako zahar etxeko zuzendariaren jarrera ona. Urrian Irain eskolako guraso elkartearekin bertan ikastaro bat antolatzeko aukera aztertzen aritu gara, eta *Herrian erosi, euskara erosi* egitasmoaren baitan establezimenduei egindako bisitetan ikastaro hauekiko interes edo beharrik ote den galdetu dugu. | | |



# Ildoa: GIZARTE ERABILERA

<table>
<tr><th colspan="3">Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</th><th>Lehentasuna: ALTUA</th></tr>
<tr><th>JARDUERAK</th><th colspan="3">JARRAIPENA</th></tr>
<tr><td rowspan="2">46. UEMAren baitan eta UEMArekin elkarlanean arnasguneak balorean jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Erdaldunentzako saioak: euskaltegiarekin elkarlanean, hiru saio antolatu dira behe urratsetako 3 taldeetan: Arantzan, martxoaren 24an; eta, Beran, apirilaren 4an. Parte hartzaileek balorazio ona egin dute; motibagarri suertatu zaiela aipatu dute.<br>• 1.3 eta 1.8 jardueretan ere UEMAren tailerrak aipatu dira, eta horietan ere arnasguneak balorean jartzeko edukiak lantzen dira.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">47. “Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">“Arnasetik” II. Bideo Sormen Lehiaketa antolatu dute UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak. Horren zabalkundea egin dugu Bortzirietan. LH5-6ko kategorian bi lan aurkeztu dira, bat R. Baroja I.P.tik eta bertzea Jesusen Bihotza Ikastetxetik.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">“Egin nirekin ere euskaraz” kanpaina</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">UEMAk prestatu eta Bortzirietan mankomunitatearen bidez zabaldutako kanpaina. Sustraiak bertze herrialdeetan izanda ere udalerri euskaldunetan errotu diren euskaldun arrazalizatuen inguruko aurreiritziak gainditzeko helburuarekin egin da. Bortzirietan materiala zabaltzeaz harago ez dugu gaia landu, baina etorkizunean lantzeko aukera aztertu beharko litzateke.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">51. Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa egin eta zabaldu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Katubi enpresarekin elkarlanean lantzen ari gara. Aurten grabazioak egin zaizkie 20 lekukori eta ondoren grabazioak katalogatu dira. Ikus-entzunezkoa egiteko proiektua prestatua eta onartua dago. Euskarabideak %85eko dirulaguntza eman du.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="3">Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</td><td>Lehentasuna: ALTUA</td></tr>
<tr><td>JARDUERAK</td><td colspan="3">JARRAIPENA</td></tr>
<tr><td rowspan="2">52. Udal hautetsiak eta langileak sentsibilizatu eta motibatu euskararen normalizazioan duten egitekoari dagokionez, UEMArekin elkarlanean. Lidergoa partekatu eta aktibatu, euskarak zehar lerroko gai bezala dagokion tokia izan dezan.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Batetik, Batzorde Erabakitzailea osatu zen egunean mankomunitatearen gaineko aurkezpena egin genuen (sorrera, bilakaera, estatutuak, funtzionamendua…). Ondoren, mankomunitatearen eta UEMAren aurkezpenak egin dira udalez udal, urrian eta azaroan. Arantzakoa egiteke dago, udal talde berriarekin.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">53. Udaletako hautetsi guziei legediari, soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari buruzko ezagutza gerturatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Teknikarien saretik hautetsientzat antolatutako formakuntza teorikoa eskaini da azaroaren 22an; 8 hautetsik parte hartu zuten. Balorazioa ona izan da, baina hobetzeko kontu batzuk nabarmendu dira. 5ek baloratu dute saioa baliagarria izan zaiela, eta 3k neurri batean. Nafarroako legediari eta euskararen egoerari buruz gehiago sakondu beharra azpimarratu dira, hobetzekoen artean.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">54. UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Jarraipenak udal guzietan (otsailean). Hurrengo erabilera planen diseinuan ari dira UEMAn eta oraindik ez gara hasi horiek aurkezten eta garatzen.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">55. Mankomunitateetan erabilera planak abiatu eta jarraipena egin.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Mankomunitate berria abian jarri arte gaia alde batera uztea erabaki dugu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">56. Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegiak, musika eskolak, zahar etxeak…) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Lesakako zahar etxean egindako euskara ikastaroaren harrera ona ikusita, bertan euskararen diagnostikoaren eta hizkuntza irizpideen gaia lantzeko aukera ona izaten ahal zen, baina udazkenean ez diogu gaiari heldu, izan ere, UEMAko planaren jarraipen talde berria oraindik osatu gabe zegoen.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">58. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Administrazioan egiten ari diren egonkortze prozesua dela eta, Euskarabideak euskara probak egiteari utzi dio bolada batez, eta udalen eskaerei mankomunitateko euskara teknikariek erantzun diete. Hauek izan dira egindako probak (6):<br>• Administrari-laguntzailea Beran.<br>• Zerbitzu anitzetako langilea Lesakan.<br>• Zerbitzu anitzetako langilea Igantzin.<br>• Soroslea Igantzin.<br>• Zerbitzu anitzetako langilea Arantzan.<br>• Begiraleak Bortzirietan.</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Horrez gain, Bortziriietan euskara proba gainditu duten izangaiak salbuesteko akordioa hartu dute udalek. Berako eta Lesakako udalak falta ziren hori sinatzeko, baina dagoeneko denek berretsi dute akordioa.<br>Urrian euskara proba bakarra egin dugu, eta Euskarabidetik ezin izan dutenez bertaratu, geure gain gelditu da (1).<br>• Mendizainaren ordezkoa Lesakan.<br>Guztira 7 euskara proba egin ditugu. | | |
| 60. Udaletan eta udalez gaindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu (ELE tresnaren aplikazioa). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Arantzan Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko (ELE) tresna aplikatzeko batzordea sortu da, garatzea aurreikusten den hirigintza planaren harira. Maiatzaren 2an, 22an eta uztailaren 3an egin ditugu bilerak. Azkeneko horretan aurkeztu da Arantzako Udal Plan Orokorrari dagokion *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa*. Hurrengo urratsa izanen da bertan zehazten diren neurri zuzentzaileak kontuan hartzea eta aplikatzea. | | |

| **Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA** | | | **Lehentasuna: ALTUA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 63. Lanbide heziketaren eta lan munduaren arteko uztardura sustatu, euskaratik. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Mendialdeko euskara teknikarion iraileko bileran gaia landu dugu eta erabaki dugu gidoi bat prestatzea lanbide heziketako arduradunekin biltzen garenerako. Gidoiaren zirriborroa prest dugu eta badugu Toki Onako arduradunaren kontaktua, baina 2024 urtera arte ez gara berekin harremanetan jarriko. | | |
| 64. Eskualdeko garapen eragileekin lanketa proiektu berrietan euskara aintzat hartzeko. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Mendialdeko euskara teknikarion iraileko bileran gaia landu dugu eta erabaki dugu bilera eskaera egitea Cederna-Garalurreko lehendakari Arantxa Arregirekin, baina 2024 urtera arte ez gara berekin harremanetan jarriko. | | |
| 67. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Bilerak egin ditugu (Arcelor eta Martiko) eta informazio mezuak bidali ditugu hainbat enpresatara, enpresetan euskara txertatzeko gidaliburuarekin batera. Interesa agertu bai, baina Bortziriietatik ez da dirulaguntza eskaerarik egin.<br>Urrian eta azaroan harremanetan izan gara AHIZE eta EMUN aholkularitzekin eta 2024an Bortziriietako enpresetan erabilera planak abia daitezen sustapena eginen dugu; bisita horietan Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei buruzko informazioa emanen dugu. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 69. Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean. | BAI | **EZ** | ERDIZKA |
| | Landu gabea. Berako ordezkariarekin harremanetan izan gara herrian bi estanko berri ireki dituztela eta; “Tabakoak” euskaraz paratzen duen errotuluarekin inguruko kontsulta bideratu dugu. Hautetsiak lan hori egin du merkatariekin, errotulu nagusia euskaraz para zezaten, baina ez ditugu irizpideak udalez udal landu. | | |
| 71. "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Urtero bezala, AHIZE aholkularitzak egin ditu bisitak. Aurten Etxalarko eta Igantziko establezimenduak jorratu ditugu bereziki, baita altzairu eta elektrotresna dendak ere. | | |
| 73. Baztan-Bidasoko turismo arloko eragileekin elkarlanerako gunea sortu. | BAI | EZ | **ERDIZKA** |
| | Mankomunitatearen ekimenez, Baztan eta Malerrekako teknikariei zenbait jarduera komunean lantzeko proposatu zaie, hala nola, euskarari buruzko bisita gidatua, turismo arloko eragileekin hizkuntza irizpideak lantzea, etab. Baina ez da lehentasunezko gaia eta zailtasunak ikusten dira horiek Baztan-Bidasoa mailan garatzeko; 2024an lantzeko. | | |
| 74. Turismo arloko eragileak aktibatu, bisitariekiko harremanean euskara balorean jartzeko eta hizkuntzari buruzko informazioa emateko. | BAI | EZ | **ERDIZKA** |
| | Lesakako turismo teknikariarekin elkarlanean hasi gara, herrian egiten diren bisita gidatuetan euskarari buruzko atalerako informazioa osatzeko eta udako bisitetan praktikan jartzeko. Udalak sarean dituen bisita birtualetan hizkuntzari buruzko aipamenak gehitzeko proposamena ere egin zaio. Balorazioa egiteke. Egitasmoa Berara ere zabaltzeko asmoa 2024an. | | |
| 76. Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak…) erabiltzera bultzatuz; kasu batzuetan UEMArekin elkarlanean. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | *Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara* argitalpena iragartzeko prentsa oharra zabaldu dugu eta landetxe, hotel, turismo bulego eta turismo gunerik garrantzitsuenetan banatu da 2022an berritutako euskarria. Aleak bukatzear zirela ikusita, berrargitaratu egin dira eta horretaz arduratu gara Bortzirietatik Baztan-Bidasoarako. | | |

| **Arloa: INGURUNE DIGITALA** | | | **Lehentasuna: BAXUA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 78. Herritarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Interneteko nabigatzaileak eta posta kudeaketa aplikazioak euskaraz konfiguratzeko bideoa egin dugu, eta gure webgunearen bitartez eta sare sozialetan zabaldu; zabaltzeko bertze bide batzuk jorratzeke ditugu (Labiagako eta Toki-Onako informatika arduradunekin). | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 79. Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini. | BAI | **EZ** | ERDIZKA |
| | Azken urteotan Euskarabidearen *Sarean euskaraz* programaren baitan egin izan dugu eskaintza; aurten ez da aukerarik egon. | | |
| 80. Merkatari, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak). | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza atera dugu, eta establezimenduen artean zabaldu da informazioa. Eskaerak egiteko epea azaroaren 30ean bukatu da eta 2 eskaera izan dira. Ebazpena abenduaren 15ean egin da eta bi eskatzaileek hartu dute dirulaguntza. | | |

| **Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK** | | | **Lehentasuna: BAXUA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 81. Eskualdeko komunikabideentzako dirulaguntzak kudeatu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Xorroxin Kultur Elkartearekin eta Ttipi-ttapa Fundazioarekin urte hasieran dirulaguntza hitzarmenak berrituak eta 2023ko dirulaguntzak ebatziak eta ordainduak. | | |

| **Arloa: KULTURA** | | | **Lehentasuna: ERTAINA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 82. Mankomunitateak herrietan antolatzen dituen kultur ekitaldiak bertako eragileen esku uzteko ibilbidea egin. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Erran daiteke kultur ekitaldiak herri bakoitzeko eragileen esku uzteko ibilbidearen bukaeran gaudela. Aurten teknikarien lan bakarra izan da herrietan erabakitako ekitaldiak kontratatzea eta ordaintzea, eta Arantza nahiz Igantziko kasuetan zabalkunderako euskarriak prestatzea. | | |
| 83. Kultur taldeekin hizkuntza irizpideak landu eta kultur taldeek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza. | BAI | **EZ** | ERDIZKA |
| | Landu gabea (ikus 91. Jarduera). | | |
| 85. Euskarazko kultur sormena sustatzeko, kultur talde eta sortzaileentzako (gazteentzako) beka. | BAI | EZ | **ERDIZKA** |
| | Sormen bekaren ordez Pello Apezetxearen omenez ikerketa beka antolatzea hobetsi zen. Ikus 5. ildoko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloa. | | |
| 87. Bortzirietako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Hitzarmena berritu da. 2023ko dirulaguntza ebatzia eta ordaindua. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 88. Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu (euskara teknikarien saretik). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Etxepare sariketarako oinarrien berri eman genuen. Guzira 26 lan aurkeztu ziren, baina epaimahaiak erabaki zuen saria eman gabe uztea. Beraz, 2023an ez da albumik argitaratu. | | |
| 89. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta liburutegiekin elkarlanean (Literatura-Geraldiak). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Hiru saio antolatu dira Literatura- geraldien baitan:<br>• Apirilaren 1ean, Lesakan, “Nola iruzkindu liburu bat” Mikel Aierberekin.<br>• Apirilaren 21ean, Beran, “Egoerak eta liburuak” Joseba Sarrionandiarekin.<br>• Apirilaren 27an, Arantzan, “Bar Gloria” Nerea Ibarzabalekin.<br>Lehenbizikoan 7 bat lagun joan ziren, baina aski gustura ibili ziren. Bigarrena nahiko jendetsua izan zen, eta pixka bat luzatu zen arren, jendea ere gustura ibili zen. Hirugarrenera ere 15 bat lagun hurbildu ziren. | | |
| 90. Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariekin elkarlanean. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | “Musikaz Blai” 2022an mendialdeko zerbitzuen artean hasitako ekimena da. Balorazioan ikusi zen teknikarien sare osora hedatzeko moduko ekimena izan zitekeela. Hala, aurten sareko Elaide egitasmoaren bitartez zabaltzen hasiko da, maiatzetik aitzinera. Zerbitzu bakoitzak urtean behin landu beharko du bertako pertsona ezagun batekin harremana egitea eta haren kantu zerrenda lortzea; Bortzirietakoa irailean egokitu da eta Estitxu Pinatxoren kantu zerrenda argitaratu da. | | |
| Euskarabideak antolatutako “Gora-gora Fest” kultur zikloaren antolaketan lagundu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Euskarabideak Euskararen Egunaren harira antolatzen duen zikloa da eta ekitaldiak han-hemenka antolatzen ditu. Aurten Igantzin izan da “Nire espazioa eman” kultur ikuskizuna, azaroaren 29an. Bitartekaritza lana egitea egokitu zaigu. | | |

| **Arloa: ELKARTEAK** | | | **Lehentasuna: ERTAINA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 91. Bortzirietako elkarteetan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egin; lehentasunak zehaztu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Lehentasuntzat hartu ditugu Berako Gure Txokoa eta Lesakako Beti Gazte.<br>• Gure Txokoa: batzorde aldaketa izan da eta hemendik aitzinera Txomin Elgorriaga eta Jon De La Cruz izanen dira arduradunak. Futbolari buruzko diagnostikoa egiteko formularioa irailean bidali beharra zuten, baina ez dugu euren berri izan. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | • Beti Gazte: UEMAkoek diseinatutako diagnostikorako galdetegia bidali diegu eta beteta bidali dituzte. Zuzendaritzari ere galdetegia bidali zaio, baina ez dute bueltan bidali.<br>Bi kasuetan, asmoa da galdetegien erantzunekin hizkuntza irizpide proposamen batzuk egitea. Udazkenean ez diogu gaiari behar bezala heldu ahal izan. | | |
| 92. Elkarteekin hizkuntza irizpideak landu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 91. jarduerarekin lotua. Lehenbizi diagnostikoa egin beharko da. | | |
| 93. Elkarteek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 91. eta 92. jarduerekin lotua. | | |

| Arloa: AISIALDIA ETA KIROLAK | | | Lehentasuna: ERTAINA |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 94. Helduentzako aisialdi eskaintzaren azterketa egin. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Gai hau ez dugu garatu. | | |
| 96. Solaslaguna egitasmoaren baitan antolatzen diren aisialdi jarduerak publiko zabalari eskaini. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Gai honi ez diogu heldu. | | |
| 97. Bortzirietako kirol eskaintzan eta kirol taldeetan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egin. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 91. jarduerarekin lotua. | | |
| 98. Kirol taldeekin hizkuntza irizpideak landu, euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 91., 92. eta 93. Jarduerekin lotua | | |
| 99. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoa antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 91. jarduerarekin lotua. | | |

| Arloa: GAZTEEN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA | | | Lehentasuna: BAXUA |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 100. Euskararen inguruko motibazio tailerrak antolatu, arnasguneen ikuspegitik. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Gai hau ez dugu garatu. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 102. “Irakurriz gozatu” egitasmoan parte hartu (“Gaztezulo” aldizkaria). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | GazteZulo aldizkariaren 6 zenbaki bidali dizkiegu BT2ko eta heziketa zikloetako gazteei.<br>Urtarrila:<br>• *GazteZulo* aldizkaria (BT2 eta heziketa zikloak):<br>    • 86 ikaslek jaso dute 6 hilabeteko harpidetza.<br>Abendua:<br>• *GazteZulo* aldizkaria (BT2 eta heziketa zikloak) eta *Beitu!* agerkari digitalaren aurkezpena: 2024ko urtarrilera atzeratu da. | | |
| 103. Ekitaldiak antolatu gazteekin elkarlanean, musika, antzerkia, etab. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Bor-borreko gazte taldearekin harremanetan izan gara udaz geroztik eta azaroaren 11n bertso-afaria antolatu dute Maddi-Ane Txoperena eta Ane Zuazabizkarrekin; 27 lagun bertaratu dira, gehienak gazteak. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA** | | | **Lehentasuna: ALTUA** |
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Migrazio departamentutik eta InnovaLocaletik ez dugu dirulaguntzarik lortu.<br>Irailean hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzeko taldea sortu dugu, eta *Bidasoa 2018-2023* dokumental emanaldia antolatzea erabaki dugu; abenduaren 17an izan da Beran. 100etik goiti lagun bertaratu dira eta balorazioa baikorra da (aniztasunaren inguruko taldea aurkezteko baliatu dugu), nahiz eta arazo teknikoak izan diren. | | |
| 105. Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe"ren ondorengoa). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | • Ospakizuna 2023an antolatu ez badugu ere, urrats garrantzitsua egin dugu horretaz arduratuko den jatorri anitzeko herritarrez osatutako lan taldea sortuta (hautetsiak, elkartekideak, teknikariak, herritarrak, etab).<br>• 3 bilera egin ditugu, irailaren 27an , azaroaren 7an eta abenduaren 13an.<br>• Ospakizunak badu data: 2024ko maiatzaren 25ean izanen da. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA** | | | **Lehentasuna: ALTUA** |
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilita, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Informazioa zuzenean jaso duten herritar erroldatu berriek. Bik mankomunitatera deitu dute informazio gehiago izateko. | | |

<table>
<tr><td rowspan="2">107. Harrera instituzionala egiten duten eragileei (harrera, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, irakasleak...), hizkuntza harreraren inguruko formazioa.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Amelia Barquinek eman du formazioa eta 14 lagunek hartu dute parte.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrentzat.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Asmoa zen Beran saio bat egitea azaroan, baina ez dugu lantzeko denborarik izan, eta heldu den urterako utzi dugu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">110. Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar boluntarioen sarea osatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Ezin erran jarduera bere horretan bete denik. Ordea, aitzinera pausoak eman ditugu:<br>• Bor-bor Euskaltzaleen Mugimenduaren barne harrera lan taldea osatu zen.<br>• Kultura eta aniztasuna lantzeko osatu dugun lan taldean harreraren gaia presente dago.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">111. Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Amelia Barquinek eman du formazioa eta Bor-borrekin batera antolatu da Borborraldiaren barrenean. 22 lagunek hartu dute parte.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="3">Arloa: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK</td><td>Lehentasuna: ERTAINA</td></tr>
<tr><td>JARDUERAK</td><td colspan="3">JARRAIPENA</td></tr>
<tr><td rowspan="2">113. Herritarren eskaerak bideratu eta erantzun egokia eman; behar diren aldaketak egin hizkuntza eskubideak bermatzeko.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Ez da izan herritarren eskaerarik.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">114. Herritarrek administrazioarekin harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko lanean eta elkarlanean segitu, UEMArekin eta Nafarroako gainerako euskara zerbitzuekin.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Aurten arreta osasun arloan jarri da (118 jarduera).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">115. Eskualdean egoitza duten eta herritarrekiko arreta eskaintzen duten zerbitzuetan (nagusiki gizarte segurantza eta enplegu zerbitzua) ahozko nahiz idatzizko arreta euskaraz izan dadin lanketa egin, mendialdeko euskara zerbitzuekin eta UEMArekin.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Aurten arreta osasun arloan jarri da (118 jarduera).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">116. Bera eta Lesakako liburutegietako arduradunen lanpostuetan HE ezarriko dela bermatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">2010az geroztik konpondu gabeko afera da hau. Eremu euskaldunean bi herri horietan bakarrik falta da eskakizuna ezartzea (C1). Berako kasuan lanpostu horretan ordezko gisa aritu denak ez zekien euskaraz eta udaletan herritarren kexa ugari jaso dira. Berriz</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | ere Nafarroako Gobernuko Euskarabidera, Funtzio Publikora eta Liburutegien Zerbitzura eskutitzak bidali dira bi udaletatik, mankomunitateak ereduak prestatuta. | | |
| 117. Hizkuntza eskubideen gaineko sentsibilizazioa: Osakidetzak erabiltzaileei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina eginen du, eta Bidasoako ESIrekin elkarlanean landuko da Bortzirietan. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 2022an Bidasoaldeko ESIko euskara teknikariarekin elkartu ginen. Herritarrek zerbitzua euskaraz eskatzeko kanpaina orokor bat elkarlanean egiteko proposamena luzatu zigun baina geroztik ez dugu horren berririk izan. | | |
| 118. Osasun arloaren diagnosia egin eta plantilla euskalduntzeko eskaera bideratu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Lesakako osasun zentroko plantilla organikoa aztertu dugu eta epe laburrean izanen diren erretiroei erreparatu zaie. UEMAk eginen du azterketa gero parlamentuan egoeraren berri emateko. Plantilaren azterketa hau maiz egiten dugu; osasun zentroetan egoera hagitz aldakorra da.<br>Arantza eta Igantziko kontsultategietan urtetan aritu den erizainak erretiroa hartu du; lanpostu horrek ere ez du eskakizunik. Azken bi urteotan landu da gai hori gobernuarekin, baina 2022ko plantilla organikoan lanpostu horrek oraindik ez zuen eskakizunik. Martxoan berriz eskutitza bidali zaio Osasunbideari bi udaletatik, mankomunitateak eredua prestatuta. | | |
| 119. Osasun zentroan euskararen kudeaketa plana sustatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Nafarroako Gobernuko departamentuetako erabilera planen baitan, erabilera plan pilotua egin zen Doneztebeko zentroan. 2023an aukera hori bertze zentroetara zabaldu da. Lesakako zentroarekin hitz egin dugu aukera hori azter dezaten, baina oraingoz plantillarekin dituzten arazoengatik ezezkoa eman dute; 2024an lantzeko asmoarekin. | | |

| **Arloa: IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA** | | | **Lehentasuna: BAXUA** |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **JARRAIPENA** | | |
| 120. 2021ko zentsuko datuak jaso eta ustiatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Zentsuko datuak jaso eta ustiatu ditugu. | | |
| 122. Bortzirietako ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetako datuak bildu ditugu. Txostena ia prest utzi dugu, egungo egoeraz gain, azken urteotako bilakaera aztertzeko. | | |
| 123. Bortzirietako euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 2023-2024ko datuak 2024ko hasieran bidali dizkigute eta memoria egiterako bilakaera aztertu dugu. | | |

<table>
<tr><td rowspan="2">124. Etorri berriei eta aniztasunari buruzko datuak bildu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Etorri berriei eta aniztasunari buruzko datuak bildu ditugu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">125. Euskararen bilakaera soziolinguistikoa aztertu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Txostenaren zirriborra egina dago, datu bakar batzuk falta dira, eta irakurketa.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">127. Ikerketarako dirulaguntza eta baliabideen berri eman.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Ez dugu baliabide eta dirulaguntza horien bilketa egin.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">3D+ ikerketa (teknikarien sareak sustatua)</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Teknikarien saretik sustatu den ikerketa, urtean zehar landuko dena, D ereduko matrikula kopurua ugaritzeko helburuarekin. Ikerketaren zatia garatzen ari da orain, Aztiker enpresaren bitartez. Ondoren bertze lanketa eginen da, datuetan oinarrituta, estrategia berriak lantzeko, Pilar Kaltzadarekin.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">130. Egoera soziolinguistikoari buruzko saioa egin.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Saioa ez dugu egin, baina Iñaki Iurrebaso soziologoarekin hitzaldi bat antolatu dugu, 2024ko urtarrilaren 25ean, balio dezakeena testuinguru gisa Bortzirietako egoerari buruz egindako lana aurkezteko.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">131. Egoera soziolinguistikoari buruzko artikulua prestatu.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Heldu den urtean egin asmo dugu, Bortzirietarako ia prest dugun txostena oinarritzat hartuta.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">132. Herritar eta eragileen kontsultei erantzun.</td><td>BAI</td><td>EZ</td><td>ERDIZKA</td></tr>
<tr><td colspan="3">Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuk Berako Udalari hainbat datu soziolinguistiko eskatu zizkioten, gradu amaierako lana osatzeko. Datuak mankomunitatetik prestatu eta bidali genituen.</td></tr>
</table>



## Ildoa: CORPUSA

| Arloa: TOKIKO HIZKERA, TOPONIMIA ETA OIKONIMIA | | | Lehentasuna: BAXUA |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 133. Arantza, Bera, Etxalar eta Lesakan etxeen izenen errotulazio proiektua garatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Arantzan bidea ireki zen proiektua lantzeko. Bertzalde, Beran auzoz auzo ari dira proiektua lantzen. Mankomunitatearen bitartez Euskaltzaindian etxe izenen zerrendak berrikusten ari dira (txostena 2024aren hasieran iritsi da), Zalainen proiektuarekin hasteko. | | |

| Arloa: HITANOA | | | Lehentasuna: BAXUA |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 137. Hitanoaren erabileraren inguruko formakuntza antolatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Irailean 10 orduko ikastaro motza eskaini dugu euskaltegian, eta hagitz arrakastatsua izan da. 13 lagunek egin dute (dirulaguntza eskatu duten guztiek hartuko dute), eta balorazioa hagitz baikorra izan da (8 eta 9 arteko puntuaketa eman diote ikastaroari parte hartzaileek).<br>Ikastarotik hitano taldea sortu da eta hasteko asmoa dute hilean behin elkartzeko. | | |

## Ildoa: KUDEAKETA

| Arloa: GIZA BALIABIDEAK ETA TALDE TEKNIKOA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 140. Administraria hautatzeko prozesua burutu, eta behin betiko lanpostua hornitu (deialdia). | BAI | EZ | **ERDIZKA** |
| | Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko legea betez, administrariaren lanpostua beteko da. Izena emateko epa bukatu zen baina gaia ebatzi gabe dago. | | |
| 142. Lan osasuneko prebentzio plana eguneratu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Prebentzio plana berritua. | | |
| 143. Langileen osasun azterketak egin. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Hiru langileek apirilean eginak. | | |
| 144. Telelanerako egokitzapen teknikoak egin eta bitartekoak zehaztu. | BAI | **EZ** | ERDIZKA |
| | Telelana praktikan jarri ahal izateko IP finkoa eskaintzen duen konexio aukera bat behar da, Movistarrek eskaintzen ez duena. Bertzelako enpresei aurrekontuak eskatu genizkien baina ez da aitzinera pausurik eman. | | |

| Arloa: PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 146. Jarraipen taldea osatu (euskara batzordea, euskalgintza, talde teknikoa…) eta jarraipena egin plan estrategikoari. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Maiatzean eta abenduan egin dira urteko bi bilerak. Memoriaren dokumentu hau hain zuzen jarraipen talde horretan aurkeztutako dokumentuetan oinarritua dago. | | |
| 149. Urteko jardueren plana eta aurrekontua prestatu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Batzorde Erabakitzailearen urriaren 25ean aurkeztu genituen plana eta aurrekontua, eta aho batez onartu ziren. | | |
| 150. Urteko ebaluazioa prestatu eta aurkeztu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Dokumentu hau izanen da urteko ebaluazioaren oinarria. Urtearen hasieran azken ukituak eginen zaizkio Batzorde Erabakitzailean aurkezteko. | | |

| Arloa: ERAKUNDEAREN EGITURA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 151. Euskalgintzaren eta mankomunitatearen gogoetaren ondoriozko antolamendu berria abian jarri. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Bor-bor taldea bere martxa hartzen ari da poliki-poliki. Egitura sendotzeko lan handia egin beharko du oraindik. Talde eragileak zama handia hartua du bere gain eta beharrezkoa da talde hori bera, baita egiturako bertzelako lantaldeak ere, indartzea eta osatzea. Teknikariok talde eragilearen bileretan parte hartzen dugu. Bor-bor taldearekin dirulaguntza hitzarmena egin du mankomunitateak, Borborraldia finantzatzeko. | | |
| 152. Antolamendu berriaren ondorioz, mankomunitatearen estatutuak berritu. | BAI | **EZ** | ERDIZKA |
| | Herrietako euskara batzordeak bertan behera utzi izanak estatutuen aldaketa bat dakar bere horretan, egitura aldatu egin baita. Horrez gain, Aholkularitza Batzordearen osaeraz ere hausnarketa egin behar da (orain arte herrietako euskara batzordeetako ordezkariez osatua).<br>Edozein kasutan bortz udalek onartua dute hiru mankomunitateak bakarrean elkartzea. Euskara mankomunitatea desegin eta egitura berri bat sortuko da. Aztertu beharko da egitura berri horretan Aholkularitza Batzordeak (edo euskalgintza sozialak) zein toki eta funtzio izanen dituen. | | |

| Arloa: EUSKALGINTZAREKIN ELKARLANA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 159. Euskalgintza sozialaren balizko antolamendu berriarekin elkarlan formulak adostu. | BAI | EZ | **ERDIZKA** |
| | Lotua dago 151 eta 152 jarduerekin. Bor-bor taldean nahiz egungo Aholkularitza Batzordean hasi ziren gaiari buruz hausnartzen. | | |
| 160. Bortzirietako era guztietako eragileekin elkarlanean aritu, bereziki euskalgintzakoekin (euskaltegia, tokiko hedabideak, ikastetxeak, bertso eskola, etab.); elkarlan horretan sakondu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Behar izan diren gaietarako elkarlanean aritu gara (ikusi eranskina). | | |
| 161. Euskal Herrian hizkuntza normalizazioan ari diren eragileekin elkarlanean aritu, bereziki UEMArekin eta Nafarroako euskara zerbitzuen sarearekin. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | Behar izan diren gaietarako elkarlanean aritu gara (ikusi eranskina). | | |
| 163. Dirulaguntzak kudeatu. | **BAI** | EZ | ERDIZKA |
| | - Hitzarmen hauek berritu dira: Ttipi-ttapa, Xorroxin, Garabide, Naf. Bertsozale Elkartea, Etxetik Plazara, Bortzirietako Euskaltegia. Garabiderekin sinatua dagoen | | |

| | |
|---|---|
| | hitzarmenaren harira, elkarte horren "Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen" erakusketa ekarri genuen Berara ekainean aste batez. Goizetan DBHko ikasleek bisita gidatuak egin zituzten, eta arratsalde batean herritarrentzat bisita gidatua antolatu zen.<br>- Bor-bor taldearekin lehen aldiz dirulaguntza hitzarmena egin da, Borborraldia finantzatzeko.<br>- Dirulaguntza deialdi hauek onartu dira: euskara ikasleentzako bekak, Bai Euskarari Ziurtagiria dutenei, hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza deialdia.<br>Deialdi eta hitzarmenez gainera, dirulaguntza zuzenak ere eman dira. Aurtengoan honako erakundeei eman zaie laguntza: Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Sortzen, Euskal Herrian Euskaraz. |

| **Arloa: IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA** | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 164. Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | PATRI:<br>- Euskarabidea, Iruñea, martxoak 10: *Euskara Nafarroako datu demolinguistikoetan. Iturriak, bilakaera eta egungo egoera"*<br>- Teknikarien sarea, apirilak 27, maiatzak 4 eta 25: *Gramatika izpiak*<br>- Udaltop topaketa, Lasarte-Oria, maiatzak 11 eta 12: *Bat, bi, hiru… Eskolaz kanpokoa euskaratik eta euskaraz*<br>- NUKF: *Kulturartekotasuna eta hezkuntza,* Atarrabia, urriak 26<br>- HUHEZI: *II. Euskara eta kulturartekotasuna* jardunaldiak. Eskoriatza, abenduak 1<br>MONIKA:<br>- Sareko Trebakuntza Lantaldea, Atarrabia, martxoak 1: *Soziolinguistika eta euskararen indarberritze prozesua: oinarri teoriko batzuk*<br>- Udaltop topaketa, Lasarte-Oria, maiatzak 11 eta 12: *Bat, bi, hiru… Eskolaz kanpokoa euskaratik eta euskaraz* | | |
| 165. Tresna (teknologiko) berriei dagokien trebakuntza jaso (IKTak, administrazio elektronikoa, telelana, bideo komunikazioa, etab.). | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | MONIKA:<br>- Euskaltzaindia, Iruñea, apirilak 4: *Zer ekarriko liguke euskarazko streaming plataforma batek?* | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 166. Komunikazioari dagokion trebakuntza jaso. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | | | |
| 167. Mankomunitatearen zereginetarako sortzen diren beharrei erantzuteko trebakuntza (adibidez, prozedura administratiboa, datuen babesa, etab) jaso. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | PATRI-ITZIAR-URKO<br>Administrazio elektronikorako AUNA plataforma berriari buruzko formakuntza, Arantza, uztailak 4. | | |
| 168. Zehar lerroko gaiei dagokien trebakuntza jaso: generoa, ingurumena, etab. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | PATRI:<br>- Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua: Genero klausulei buruzko ikastaroa. Online. Ekaina.<br>PATRI-URKO-ITZIAR:<br>- Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua: *Genero berdintasunean oinarrizko formakuntza*. Online. Urria. | | |
| Pello Apezetxea ikerketa beka | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Plan honetan sormen beka bat antolatzea aurreikusia zegoen. Pello Apezetxea hil ondotik, haren omenez jardueraren bat antolatzeko iritsi zen, eta ikerketa beka antolatzea deliberatu zen. Beka Euskaltzaindiarekin elkarlanean antolatu da. Urtearen hasieran dedikazio handia eskatu duen jarduera izan da. Epea iraganda, ez zen inolako eskaerarik aurkeztu. Berehala II. edizioa martxan jarri zen, izen emateko epea urriaren bukaera arte luzatuz. Bigarren honetan sei eskaera aurkeztu dira. Lan saritua Paula Laitak bertze bi kiderekin osatutako taldearen ikerketa baterako izanen da: “Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak”. Zortzi hilabeteko epea izanen du lantaldeak ikerketa osatzeko. | | |
| Hitzaldia Euskarabidearen jardunaldian | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | Euskarabideak eskatuta, erakunde horrek antolatutako<br>*Euskararen gaineko politika publikoak Nafarroan. Hizkuntza-plangintza* jardunaldian parte hartu dugu, hitzaldi hau eskainiz: *Hizkuntza planen bilakaera Bortzirietan* (Patri) | | |

| **Arloa: KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA** | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 170. Bulegoa, tresnak, altzariak, biltegia... kudeaketa eta mantenu egokia bermatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | | | |

| 171. Aurrekontuak, kontuak eta diruzaintza kudeatu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
|---|---|---|---|
| | Administrazio elektronikoan urratsak egiten hasi gara. Aurten AUNA plataformarekin lanean hasi gara. Batik bat administrariak erabiltzen du, eta teknikariok espediente elektronikoen kudeaketan hasi beharko dugu. | | |

| Arloa: KOMUNIKAZIOA | | | |
|---|---|---|---|
| **JARDUERAK** | **EBALUAZIOA/JARRAIPENA** | | |
| 173. Webgunearen egitura eta edukiak eguneratu. | BAI | EZ | ERDIZKA |
| | 2022an webgunearen egitura eta edukiak aldatu ondotik, aurtengo gaztelaniazko bertsio laburtua prestatu dugu. Horrez gain, Pello Apezetxea ikerketa bekaren informazioa bilduko duen azpiatala sortu dugu.<br>Berrikuntza modura, webgunean astero berri bat argitaratzeko plangintzatxo bat osatu dugu. Plan horretan urte osoan astero eman daitezkeen albisteen zerrenda osatu dugu, eta astelehen goizero hiru lankideen artean erabakitzen dugu zein albiste eman. | | |

## ERANSKINA: TEKNIKARIEK PARTE HARTUTAKO BILERAK, FORMAKUNTZA SAIO NAHIZ JARDUNALDIAK, ETA EKITALDIAK

Urtean zehar izandako bileren laburpena da ondoko hau. Ez da erabat zehatza, baina balio du goiti-beheiti islatzeko bileren jarduera:

| NOREKIN | | URKO | | PATRI | | BIEK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Lanordutan | L. kanpo | Lanordutan | L. kanpo | Lanordutan | L. kanpo |
| BEM egiturakoak | | 2 | 2 | 4 | 3 | 7 | 4 |
| Bortzirietako bertze eragileak | Hezkuntza | | | 23 | 4 | | |
| | Euskaltegia | 7 | | | | | |
| | Bor-borreko Talde Eragilea | | 6 | | 3 | | |
| | Bertzelakoak (taldeak, norbanakoak) | 12 | 3 | 20 | 1 | 3 | |
| Bortzirietatik kanpoko eragileak | UEMA | 9 | | 3 | | 2 | |
| | Teknikarien sarea, lantaldeak… | 19 | | 4 | | 9 | |
| | Topagunea/Euskaraldia/Solaslaguna | 5 | | 6 | 2 | | |
| | Euskarabidea | | | 2 | | | |
| | Dindaia | | | 2 | 1 | | |
| | Bertzelakoak (taldeak, norbanakoak) | 3 | | 5 | | 1 | |
| GUZIRA | | 57 | 11 | 69 | 14 | 22 | 4 |

Urte osoan guzira 177 bilera izan ditugu teknikariok: Monika/Urkok 68, Patrik 83 eta biok batera 26. Lanordutan 148 bilera izan dira, eta hortik kanpo 29.
Mankomunitatearen egiturako bilerez ari garela, honakoaz ari gara zehazki:

- Aholkularitza Batzordea: 2
- Batzorde Erabakitzailea: 7
- Mankomunitate bakarra eratzeko prozesuaz: 1
- Jarraipen Batzordea: 2
- Idazkariarekin edota lehendakariarekin: 6
- BEM-UEMA aurkezpenak udaletan: 4

Aparteko orduei dagokienez, 2022ko apirilean udal ordezkariekin egindako bileran adostu zen urtean 50 ordu baino gehiago ez zirela izanen, eta betiere aitzinetik lehendakariari bilera horietan parte hartzeko baimena eskatuta. 2023an Patrik 50:24 aparteko ordu egin ditu eta Urkok 25. Bilera hartan adostutakoaren arabera, Patrik lehen sei hilekoan pilatutako orduak kitatzeko udako asteetan ordutegi murriztua izan zuen, eta hortik aitzinera pilatutakoak konpentsatzeko, azaroan eta abenduan ortziraletan ordutegi murrizketa eta urtarrilean jai egunak. Urkoren kasuan, kontuan hartuta lehen sei hilekoan baimen batekin egon zela eta ez zela mankomunitatean lanean aritu, uztailetik abendura pilatutako orduak urte bukaeran lanaldia murriztuz eta jai egun batzuk hartuta kitatu ditu.

Teknikarien sarearekin zerikusia izan duten bilerei dagokienez, batetik sareko bilerak aipatu behar dira, Nafarroako toki entitateetako teknikari guziak elkartzen dituen foroa. Horrez gain, teknikariak arlo eta proiektu zehatzak lantzeko lantaldetan banatuak gaude, eta bertze gai batzuetarako eskualdeka banatzen gara.

Lantalde bakoitzak bere dedikazio fitxa dauka eta urtean zehar hori betetzen du, proiektuari bileretan, bulegoko lanetan eta abarretan emandako orduak apuntatuz.

Bortzirietako teknikariok lantalde hauetan hartzen dugu parte:

- Koordinazio Gunea (sareko koordinazio orokorraz arduratzen den lantaldea): Urko.
    - Orotara 16 bilera
    - Lantaldeari eskainitako ordu kopurua: 45:10 ordu.
- Elaide.eus kudeatzeko lantaldea (Monika ekainera arte):
    - Orotara 2 bilera.
    - Ez zen dedikazio fitxa bete.
- Aisialdi lantaldea: Patri
    - Orotara 3 bilera
    - Lantaldeari eskainitako ordu kopurua: 06:30 ordu
- Mendialdeko teknikarien arteko koordinazio bilerak ere egiten ditugu. Mendialdeko guzien arteko bakarra izan da 2023an, eta Baztan-Bidasoako eskualdeko hiru zerbitzuen artekoak 3.